

EUSKAL HERRIAN GURE HEZKUNTZA ERAIKI!

LOMCErik GABEKO HERRIA

Hezkuntza eskubide bat da, guztion eskubidea. Administrazioaren ardura da eskubidea unibertsal hau bermatzea, eta gizarte zibilaren erantzukizuna da eskubidea betetzen den zaintzea.

Ikasle guztien garapen osoa bermatuko duen heziketa parte hartzaile, askatzaile, hezkidetzaila, inklusibo, demokratiko, anitz, integratzaile eta euskaldun; kalitatezkoa hezkuntza herritarra. Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituena.

Udalbatza honek hezkuntza herri baten eta bere herritarren garapenean duen garrantziaz jabeturik, hezkuntza komunitatetik harago denon ardura eta konpromisoa dela aitortzen du.

LOMCEk oinarrizko hezkuntza eskubideari erasotzen dio eta horregatik bere kontra agertu da Euskal Hezkuntza Komunitatea, eskola inklusiboa bazterten duelako, autoritarioa delako, segregatzailea delako, Euskara eta euskal kultura heriotzara kondenatzen dituelako, familien eta herritarren parte hartzearen kontra doalako, erlijioa inposatzen duelako, ikasleen berezitasunen errealitatetik urrun dagoen hezkuntza inposatu nahi duelako, sistema merkantilista baten beharrei erantzuten diolako...

Oinarrizko printzipioen kontra joateagatik eta gizartearen nahiaren kontra inposatuak izateagatik, LOMCE ez-aplikatzeko asmo garbia erakusten dugu, lehen aipatutako arrazoi moralengatik eta lege injustu hau aldatzeko asmoarekin egiten dugu.

Eta _____(a)ko Udalbatza honek ikastetxeetan LOMCEren ez aplikazioan eta gure Hezkuntza propioa garatzeko bidean, indar aktiboa izateko eskura dituen neurri guztiak aktibatzeke konpromisoa hartzen du.

Hau honela izanda, Udalbatza honek, LOMCEri bere ezezkoa adierazteaz gain, LOMCERIK GABEKO HERRIA DINAMIKARI babesa ematen dio, LOMCERIK GABEKO HERRIA egitasmotik errealitatera eraman nahi den aldarriaren baitan. Maila pertsonalean hasi eta kolektiboan garatua izango dena.

UDALETXE honek, _____ **LOMCErik GABEKO HERRIA** dinamikari babesa emango dio hurrengo lehentasunen baitan;

- Konpromisoak hartzeko, lehentasun bakan batzuk kontuan hartu ditugu eta LOMCEren zer atalari ez diogun obedituko eta zeren alde egingo dugun zehaztu dugu, beti gure aukeren arabera (ikasle, familiako kide...).
- Ikasgai espezifikoetan hezkuntza laikoaren alde egingo du.

- Ikaslea hezkuntza prozesuan eskubidedun subjektu aktibo nagusi gisa aitortuko du.
- LOMCEk ezartzen duen LHko 3. mailako (8 urteekin) ebaluazio diagnostikoari uko egingo dio, eta irakasleen ebaluazio jarraituari kasu egin.
- LOMCEk ezartzen dituen LHko 3. eta 6. mailako ebaluazioen emaitzak publiko egin nahi izatea salatzen du.
- Ez dugu Oinarrizko Lanbide Heziketaren gomendiorik egingo, diseinatuta baitago lanaren prekaritatea areagotzeko.
- Irakasleen lan-tresna gisa curriculum propioa izatea ahalbidetuko dugu.
- LOMCEren ez aplikaziorako hezkuntza eragile ezberdinek kaleratutako gida lan-tresna gisa erabiliko du.

Eta **EUSKAL HERRIAN HEZKUNTZA SISTEMA PROPIOA** eraikitzea hurrengo lehentasunen baitan kokatzen dugu, hezkuntza eragileen gehiengoaren eskaerei jarraiki:

- * Ikasleen garapen, behar eta eskubideak bermatuko dituen heziketa integrala (pertsonalizatua, inklusiboa, hezkidetzaila, kritikoa, laikoa...) eta horretarako behar diren baliabide guztiak izango dituen.
- * Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen.
- * Curriculum propioa izango duena.
- * Heziguneen autonomia eta parte hartze eta funtzionamendu demokratikoa bermatuko duena.
- * Euskal Herrirako hezkuntza marko normatibo propioaren alde egingo dut.

ESKAERAK:

Udaletxea gure bozgorozgailua den einean honako konpromesuek eskatu ahal ditugu, moziotik haratago doana;

- Mozioa sinatu.
- Bandera udaletxean jarri.

- Bandoak atarietan atera; LOMCERIK GABEKO HERRIA... egitasmotik errealitatera.

- Egingo diren ekimenetan parte hartu; kalejirak, jaiak,...

Findu behar dugu.